

- **Balioak**

Gure proiektuaren abantailak ugariak dira: norberak bere energia-iturria izatea, energia berriztagarriak sustatzea, dirua aurrezte eta erregai fosil gutxiago kontsumitzea.

Gure produktua originala eta berritzailea izateaz gain ingurumena errespetatzen du. Originala eta berritzailea dela esaten dugunean, horrelako produkturik saltzen duen enpresarik ezagutzen ez dugulako da. Bestetik, energia berriztagarriengatik apustu egitean, ingurumena errespetatzen dugu eta energia lortzeko prozesu horretan energia-galera txikiagoak daudenez, eraginkorra dela pentsatzen dugu.

